

1. ORDENANTZA FISKALA, ONDASUN HIGIEZINEN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUENA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA

Erandioko Udalak Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eskatuko du Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zerga honi buruzko 9/1989 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorrituz. Ordenantzaren eranskinean jasotzen dira aplikagarri diren tarifak.

2. ARTIKULUA

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. ARTIKULUA

1. Zerga honen zergagaia landalurreko eta hirilurreko ondasun higiezinaren gaineko eskubide hauen titulartasuna da:

- a) Ondasun higiezinaren edo haiek lotuta dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazio-emakida.
- b) Lurrazal-eskubide erreala.
- c) Gozamen-eskubide erreala.
- d) Jabetza-eskubidea.

Aurreko idatz-zatian azaldutako zergagaietako bat gertatuz gero, higiezina modalitate horren zioz egongo da Zergaren kargapean eta beste guztien zioz ez, ezarritako hurrenkerari jarraituz. Higiezin bat udal mugarte batean baino gehiagotan badago, Zergaren ondoreetarako haietako bakoitzean bertan duen azaleraren zioz ordainduko du.

2. Ondorengoak ez daude zergaren kargapean:

a) Errepideak eta bideak eta herri jabariko itsasoaren eta lehorraren arteko ondasunak eta jabari hidraulikoko ondasunak, baldin eta denen aprobetxamendurako eta doakoak badira.

b) Udalen jabetzako ondasun higiezin hauek:

- Herritarren erabilerarako herri jabarikoak.
- Udalak berak zuzenean kudeatzen duen zerbitzu publiko bati loturiko herri jabarikoak, gainontzekoei kontraprestazioa tarteko dela lagatukoak izan ezik.
- Ondare ondasunak, gainontzekoei kontraprestazioa tarteko dela lagatukoak izan ezik.

4. ARTIKULUA

Zerga honen ondoreetarako, hauexek dira hirilurreko ondasun higiezinak:

1) Hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarri legez sailkatutakoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta hori garatzeko arauetan aurrez ikusitakoaren arabera sektoreetan antolatu dena.

Nekazaritza alorreko legeetan xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lurrak ere honelakotzat hartuko dira, beti ere, zatikapen horrek nekazaritzako erabilera hutsaltzen bada, eta, hala ere, haien landa-izaeran aldakuntzarik ez bada, zerga honetakoak ez diren beste ondorioetarako.

2.- Hiri eraikuntzak, horrelakotzat hartzen ditugula:

a) Eraikinak, direnak direla horiek eraikitzeke erabili diren elementuak; eraikinok dauden tokiak; eraiki diren lur mota eta haien erabilera, are eraiki diren moduagatik garraiagarriak direnean eta eraikita dauden lurra eraikuntzaren jabearena ez denean ere; eta eraikintzat jo daitezkeen merkataritza eta industriako instalazioak: eustarriak, tankeak eta zamaguneak

b) Urbanizazio eta hobekuntza obrak, esaterako lur-berdinketak eta aterpe gabeko guneak erabiltzeko egiten direnak, horrelakotzat hartzen direla azoka legez erabiltzeko barrunbeak, zerupeko gordailutegiak; presak, ur-jauziak eta urtegiak, are hondoa ere; kiroletan jarduteko zelaiak edo instalazioak, kaiak, aparkalekuak eta eraikuntzei erantsitako ondoko guneak.

c) Hurrengo artikuluan landalurreko ondasun legez beren beregi ageri ez diren gainerako eraikuntzak.

5. ARTIKULUA

Zerga honen ondoretarako, hauexek dira landalurreko ondasun higiezinak:

a) Aurreko artikuluko a) letran xedatutakoaren arabera hirilurreko ondasun ez diren lurrak.

b) Landa-eraikuntzak, horrelakotzat hartzen direla landalurretan egonik nekazaritza, abeltzaintza edo basozaintzako ustiapenei ekiteko ezinbestekoak diren nekazaritzako eraikinak eta instalazioak.

Zerga honen ondoretarako, inoiz ere ez dira eraikuntzat hartuko nekazaritza, abeltzaintza edo basozaintzako ustiategietan erabiltzen diren estalpe edo aterbe txikiak, baldin eta eraikitzeke material arin eta iraungaitzak erabiltzearen lurra hobeto aprobetxatzeko, soroak babesteko, abereak aldi batez edukitzeko edo loturik dauden jardueran erabiltzen diren tresna eta lanabesak gordetzeko besterik ezin erabil badaitezke. Halaber, zerga honen ondoretarako ez dira eraikuntzat hartuko landalurretan egiten diren obra eta hobekuntzak, eta hauek haien balioaren osagai banaezinak izango dira.

III. SALBUESPENAK

6. ARTIKULUA

Jarraiko ondasun higiezinak salbuetsita daude:

a) Estatuarenak, Euskal Autonomia Erkidegoarenak, Bizkaiko Lurralde Historikoarenak edo bertako toki erakundearenak, nazio defentsarako, hiritarren segurtasunerako eta irakaskuntza eta presolekuen zerbitzurako badira.

b) Erkidegoaren ondasunak eta denen esku dauden auzo-mendiak.



c) Hazkunde moteleko espeziez basoberritu diren titulartasun publiko edo pribatuko mendiak Salbuespen hau otsailaren 2ko 152/1996 Errege Dekretuko 1., 2. eta 3. eranskinetan aipatu diren hazkunde moteleko espezieentzat da, horien aprobetxamendu nagusia zura edo kortxoa direnean; halaber, zuhaitzen dentsitatea espezie horri dagokion arrunta edo ohiko denean, salbuespena espezie horiek hartzen duten baso sailentzat ere bada.

Era berean, aurreko lerrokadan adierazi ez diren basoak, korporazioek, erakundeek eta norbanakoek zuhaitz berriak sartzan dituzten finken zatiei dagokienez, eta basogintzako administrazioak onesten dituen antolamendu-proiektuei edo plan teknikoei loturiko zuhaitziak hazten ari diren lurzatiak. Letra honetan ezarritako salbuespenak hamabost urte iraungo du, eskabidea egiten den zergaldiaren hurrengotik zenbaturik.

d) Eliza Katolikoarenak, Estatuaren eta Vatikanoren artean 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz sinatu zuten akordioan aurrikusitakoaren arabera.

e) Eliza Katolikoaz beste elkarte konfesionalenak, baldin eta elkarteok legez aintzatetsita badaude, Espainiako Konstituzioaren 16.3 artikulua aipatzen dituen lankidetzat-hitzarmenetatik datorrenaren arabera, akordio egokiari loturik.

f) Gurutze Gorriarenak eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuenak.

g) Atzerriko gobernuenak, haien ordezkari diplomatikoei edo kontsulatuetakoei, edo haien erakunde ofizialek erabiltzeko direnean, baldin eta elkarrekotasuna badago edo nazioarteko indarreko hitzarmenekin bat badatoz.

h) Nazioarteko indarreko hitzarmenak direla bide salbuetsi daitezkeen organismo edo erakundeenak.

i) Trenbideek atzemandako lurak eta lur horietan dauden eraikinak, baldin eta geltokiak edo biltegiak badira edo lineak ustiatzeko ezinbestekoa den zerbitzuren baterako behar badira. Honenbestez, ez daude salbuetsita ostalaritzako, ikuskizunetako, merkataritzako eta zabalaldiko establezimenduak, ez eta enpleguak bizi izateko egindako etxeak, zuzendaritza-bulegoak eta fabrika-instalazioak ere.

j) Euskal Ondare Kulturalari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 2. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letran adierazitakoaren arabera monumentu diren ondasun higiezinak. Monumentu kalifikaturiko kultur ondasunak zein hala inbentariatuak daude salbuetsita, baldin eta aipatutako Legean ezarritako betekizunak betetzen badituzte.

Halaber, Euskal Ondare Kulturalari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 2. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letran aipatutako monumentu multzoaren barruan dauden ondasun higiezinak ere salbuetsita daude. Salbuespen honek 7/1990 Legean ezarritako betekizunak betetzen dituztela monumentu gisa kalifikatu edo inbentariatutako babes bereziko edo babes ertaineko araubideen barnean dauden ondasunak soilik hartuko ditu.

Orobat, salbuetsita daude Euskal Ondare Kulturalari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 44. artikuluan ezarritakoaren arabera kultur ondasun adierazitako (kalifikatu zein inbentariatu) alde arkeologiko baten barruan dauden ondasun higiezinak. Horrez gainera, higiezin batean esku-hartze arkeologikoa egin eta Eusko Jaurlaritzako sail egokiak ezartzen badu aurkitutako hondarrak bertan egon behar direla eta ezin direla ez ezabatu, ez beste leku batera eraman, higiezin hori Zergatik salbuetsita egongo da.

k) Hezkuntza hitzarmenei heldutako ikastetxe pribatuak, harik eta ikastetxe itundu izaera hori galdu

arte.

l) Universidad del Pais Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatearenak.

m) Herri onurako adierazpena duten eta abenduaren 5eko 9/1995 Foru Arauak lehen kapituluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten fundazioek eta elkarteek salbuespena izango dute euren titulartasuneko ondasunengatik baldin eta gainerakoei kontraprestazioz lagatako ondasunak ez badira, sozietatearen xedea edo helburu zehatza osatzen duten jardueri lotuta badaude, eta gehienbat sozietatearen xedea edo helburu zehatza osatzen ez duten jarduera edo ustiapen ekonomikoetarako erabiltzen ez badira.

n) Irabazizkoak ez diren erakundeen titulartasuna duten ondasunak, , zerga honi buruzko araudian ezarritakoen arabera. Sozietateen Gainerako Zergatik salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoei lotuta daudenak izan ezik.

Ezarritako salbuespena aplikatzeko, ezin bestekoa izango da irabazizkoak ez diren erakundeen otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauko 16 artikuluko 1. atalean arauturiko aukeraren erabilera Udalari jakinaraztea eta lehen aipatutako Foru Arauaren bigarren Tituluan arauturiko zerga-araubide bereziari lotutako baldintzak nahiz kasuak betetzea.

IV. SUBJEKTU PASIBOA

7. ARTIKULUA

1.- Ondorengo hauek ditugu, zergadun moduan, zergaren subjektu pasiboak: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 34. eta 35. artikuluetan aipatzen dituen erakundeak, bai eta testamentu-ahalaz baliatzeko zain daudela Zerga honen zergaia den eskubide baten titular diren jaraunspenak ere.

2.- Aurreko idatz-zatian xedatutakoa aplikatuta ere, subjektu pasiboak ahalmena izango du zerga-zama beste batzuei jasanarazteko, zuzenbide erkidearen arauari jarraituz. Hori horrela, Udalak Zergaren kuota likido osoa jasanaraziko die subjektu pasibo ez izan arren kontraprestazio baten bidez jabetza publikoko ondasunak edo ondare ondasunak erabiltzen dituztenei.

Halaber, zergadunaren ordezkioak beste emakidadunei jasanaraz diezaike bakoitzak ordaindu beharreko kanonaren arabera kuota likidotik dagokion zatia.

3.- Ondasunak pro indiviso badaude edo pertsona askorenak badira, Zergaren ondoreetarako subjektu pasiboa haien erkidegoa izango da, identifikazio fiskaleko kodeari dagokion izendazioa aintzat hartuta.

Erkide, kide edo partaide bakoitzaren nortasuna eta partaidetza-kuota Higiezinaren Katastroan agerrarazi behar dira denek elkar hartu eta erabaki ondoren berariaz eskatuz gero. Halaber, irabazpideko araubidean dauden ezkontideek ere eska dezakete Higiezinaren Katastroan ager dadin nortzuk diren.

4.- Zerga honen zergagai diren eskubideen titulartasuna aldatzen bada, dena delakoa kausa, eskubideen xede diren ondasun higiezinak zerga-kuota osoa ordaintzeko erabili beharko dira, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorreko 41. artikuluan ezarritakoaren arabera. Ondore horietarako, notarioek eskualdatzen den higiezinari buruzko informazioa eskatuko dute eta Ondasun Higiezinaren gainerako Zergaren zioz hari loturiko ordaindu gabeko zorren berri emango die bertaratutakoei.

5.- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorreko 34. eta 35. artikuluetan aipatutako erakundeetako partaide edo titularkideek solidarioki ordainduko dute zerga honen kuota, bakoitzak bere partaidetzari dagokiona, Higiezinaren Katastroan hala ageri badira. Katastroan inskribatuta ez badaude, erantzukizuna hainbana eskatuko da, hala ere.

V. ZERGA OINARRIA

8. ARTIKULUA

- 1.- Zerga honen zerga-oinarrria ondasun higiezinaren katastro-balioa izango da.
- 2.- Katastro-balioa higiezinaren balio fiskala da; Zerga Administrazioak objektiboki kalkulatzeko du Katastroan dauden datuez baliatuz. Horretarako merkatu-balioa hartzen da erreferentzia gisa; katastro-balioa ezin da hura baino handiagoa izan.

9. ARTIKULUA

- 1.- Hirilurreko ondasun higiezinaren katastro-balioa zein den jakiteko, lurzorua balioa eta eraikuntzena batuko da.
- 2.- Lurzorua balioa kalkulatzeko, hura ukitzen duten hirigintzako inguruabarrak hartuko dira kontuan.
- 3.- Eraikuntzen balioa kalkulatzeko, hirigintzako eta eraikuntzako inguruabarrak ez ezik, non dauden, historikoak edo artistikoak diren, zertarako erabiltzen diren edo zein xede duten eta beraien kalitatea ere hartuko dira kontuan, bai eta eraginik eduki dezakeen beste edozein faktore ere.

10. ARTIKULUA

- 1.- Landalurreko ondasunen katastro-balioa zein den jakiteko, lurra balioa eta eraikuntzena batuko dira.
- 2.- Landalurren balioa kalkulatzeko, arauz ezartzen den korritua, horrek benetan sortzen dituen errentak edo lurra emakortasunaren arabera sor ditzakeenak eta dauden soroak edo aprobetxamenduak kapitalizatuko dira, haien katastro-ezaugarrien arabera.

Errentak kalkulatzeko, nekazaritzako ezaugarri homogeenak dituen alde edo eskualde bakoitzean dauden errentamendu edo gasailak ikertuz lortzen diren datuak hartu ahal izango dira aintzat.

Halaber, idatz-zati honen ondoretarako, kontuan hartuko dira landalurretan egiten diren hobekuntzak, haien balioaren osagai banaezinak izango direnak, eta behar izanez gero, ekoizten hasi arteko urteen kopurua. Basogintzako ustiategiak dauden landalurrei dagokienez, zuhaitz berrien adina, zuhaitzen egoera eta aprobetxamenduaren zikloa hartuko dira kontuan.

Beti ere, kontutan hartuko da aprobetxamendu hobea izateko ekoizpide arruntak erabili beharra, baina ez apartekoak.

Hala ere, ustiategiaren izaerak edo udalerraren ezaugarriek benetako errenta edo sor litekeena

zenbatekoa den jakitea eragozten dutenean, ondasunen katastro-balioa kalkulatu ahal izango da, barnean direla hobekuntza iraunkorrek eta baso berriak, kontuan harturik nekazaritzako faktore teknikoak eta ekonomikoak eta haiek ukitzen dituzten gainerako inguruabarrak.

3.- Landalurreko eraikuntzen balioa kalkulatzeko, aurreko artikuluko 3. idatz-zatian ageri diren arauak aplikatuko dira, horretarako biderik ematen duten heinean.

11. ARTIKULUA

1.- Aipatutako katastro-balioak higiezinaren katastroetan dauden datuak oinarri harturik finkatuko dira. Higiezinaren Foru Katastroa Bizkaiko Lurralde Historikoko hirilurreko eta landalurreko jabetzaren inbentarioa eta erregistroa da. (Foru Katastroa eratzea, mantentzea eta berrikustea Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenekoa da, baina, hala ere, hark bere eginkizunak eskuordetu ahal ditu eta lankidetzaz hitzarmenak sinatu ditzake toki erakundeekin eta korporazio publikoekin.)

12. ARTIKULUA

1.- Landalurreko Higiezinaren Katastroan eta Hirilurreko Higiezinaren Katastroan landalur eta hirilurreko ondasun higiezinaren datuak eta deskripzioak daude; datuok azalaren, kokaeraren, mugen, soroen edo aprobetxamenduen, kalitateen, balioen eta gainerako inguruabar fisiko, ekonomiko eta juridikoen berri ematen dute, hau da, lurralde-jabetza adierazten dute eta honen alderdi eta aplikazio guztiak azaltzen dituzte. Horrez gainera, hirilurreko ondasun higiezinaren identifikaziorako zenbaki finkoa ere agerrarazi behar da.

Katastroko datu-basean dauden datuak egiazkotzat hartuko dira zergen arloko arautegi orokorrean adierazitakoari lotuz; hala ere, Jabetzaren Erregistroan dauden datuek ondorez juridikoak izan ditzakete beste eremu batzuetan.

2.- Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera zergapean dauden ondasun higiezinak behar bezala identifikaturik egon behar dira landalurreko eta hirilurreko higiezinaren katastroetan. Bakoitzak bere erreferentzia eduki behar du katastroan; poligonoaren eta lursailaren aipamena, landalurreko ondasunak direnean, edo katastroko zenbaki finkoa, hirilurreko ondasunak direnean.

13. ARTIKULUA

1.- Ondasun Higiezinaren Zerga arautzen duen ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauan ezarritakoaren arabera finkatu, berrikusi, aldatu eta eguneratu ahal dira katastro-balioak.

2.- Katastro-balioa finkatzea esaten zaio Administrazioak higiezin multzo baten katastro-balioa lehenengoz zehazteko egiten duen eragiketari. Horretarako, 9/1989 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu behar zaio.

3.- Katastro-balioa berrikustea esaten zaio administrazioak aldi-aldi multzo baten katastro-balioa zehazteari, balio hori lehenik ezarrita zuen multzo bati. Horretarako, 9/1989 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu behar zaio.

4.- Katastro-balioa aldatzea esaten zaio administrazioak higiezin baten edo multzo baten katastro-balioa zehazteko, hirigintzako plangintza edo beste inguruabarren bat dela bide haren eta merkatu-balioaren artean diferentzia handia dagoenean egiten duen eragiketari. Katastro-balioa aldatzeko 9/1989 Foru Arauko 14. artikuluan ezarritakoaren arabera behar den prozedurari jarraitu behar zaio.

5.- Katastro-balioa eguneratzea esaten zaio inflazioa dela eta katastro-balioa zaharkiturik ez geratzeko, koefiziente jakin batzuk aplikatuz, katastro-balio berriak oro har finkatzeko Foru Administrazioak egiten duen eragiketari. Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauetan finkatutako koefizienteak aplikatuz eguneratuko dira katastro-balioak.

14. ARTIKULUA

1.- Katastro-balioa finkatzeko eta berrikusteko prozeduran bi fase daude: lehendabizi lurzorua mugatu behar da eta balio-ponentziak prestatu eta onetsi behar dira; gero ondasun bakoitzari bere balioa ezarri behar zaio.

2.- Balio-ponentzietan Zergarako irizpideak, aldeak edo poligonoak, balorazio-taulak, hirilurren mugak adierazten dituen indarreko hirigintzako planeamendua, merkatu-azterlanen analisiak eta ondorioak, eta katastro-balioak finkatzeko behar diren gainerako elementu guztiak agerrarazi behar dira.

Onetsi aurretik, derrigorrezkoa da Udalak balio-ponentziei buruzko txostena egitea; hamabost egun izango dira horretarako eta txosten ez-loteslea izango da.

3.- Balio-ponentziak erabaki bidez onetsiko dira eta haiei buruzko ediktuak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira balioek ondoreak sortu behar dituzten urtearen aurreko urteko lehen seihilekoan; ediktuan adieraziko da non eta zenbat denbora egongo diren ikusgai, beti ere, hamabost egun gutxienez.

Ponentzien aurka aukerako berraztertze errekurtsua jar daiteke, edo bestela, erreklamazio ekonomiko-administratiboa tartekatu zuzenean, horretarako bidezko diren epeetan. Errekurtsua edo erreklamazioa jartzeak ez du etengo aurkaratutako egintza betearaztea.

4.- Ponentziak argitaratutakoan, katastro-balioak banaka jakinaraziko zaizkie ondasunen jabeek; jakinarazpenean zenbatekoa nola kalkulatu den azaldu behar da eta horretarako ponentziaren berri eman behar da, eta behar izanez gero, baita lurzoruaren eta eraikintzaren oinarriko moduluen berri ere, lurrek poligono, kale, tarte, alde edo toki horretan duten balioa adierazi behar da, eraikuntzen balio-oinarria, aplikatu diren zuzenketa-koefizienteak eta higiezinak katastroaren ondoretarako duen azalera ere bai.

Katastro-balio berriek jakinarazi eta hurrengo urtean izango dituzte ondoreak. Katastro-balioak jakinarazteko administrazio-egintzak jakinarazteko erabiltzen diren irizpide orokorrak aplikatuko dira.

Norbanakoak bere higiezinari emandako katastro-balioa aurkaratu ahal du; horretarako aukerako berraztertze errekurtsua jar dezake edo, bestela, erreklamazio ekonomiko-administratiboa zuzenean, hamabost eguneko epean.

15. ARTIKULUA

1.- Hirigintzako plangintza edo bestelako inguruabarren bat dela bide argi geratzen bada udalerriko ondasun higiezin gehienek katastro-balioaren eta merkatu-balioaren artean diferentzia handia dagoela, aldatu egingo dira, ofizioz edo dagokion udalak eskatuta.

Aldatu beharra dagoenean, Ordenantza honetako 13. artikuluan ezarritako prozedura berari jarraituko zaio; balio-ponentzia berriak prestatu eta onetsi beharko dira.

2.- Balio-diferentziak udalerriko alde, azpialde, jarraigabeko poligono, garapen-eremu, burutzapen une edo finka batean edo batzuetan soilik agertzen badira, ez da egongo ponentzia berriak onetsi

beharrik.

Hala gertatzen denean, lehendik dauden ponentziak aldatuko dira eta, aldatu ondoren, udalak txostena egin beharko du, loteslea izango ez den txostena, 9/1989 Foru Arauko 13. artikuluko 2. idatz-zatian ezarri bezala.

Lurrak zergapean jartzea, lur batzuen sailkapena eta kalifikazioa aldatzea eta hirigintzako erabilerak edo aprobetxamenduak aldatzea ponentzia-aldaketatzat hartuko dira, berariazko arauetan ezarritakoari lotuz.

Hala aldatzen diren katastro-balioak banaka jakinarazi behar zaizkie subjektu pasiboei administrazio egintzak jakinarazteko ezarritako irizpideei lotuz, eta jakinarazpenean balio berria nola kalkulatu den azaldu behar da.

Katastro-balio berriek jakinarazi eta hurrengo urtean sortuko dituzte ondoreak.

Norbanakoak aldi berean aurkaratu ahal ditu ponentziako balioa eta katastro-balio berria; horretarako aukerako berraztertze errekurtsoa jar dezake edo, bestela, erreklamazio ekonomiko-administratiboa zuzenean. Hori dela eta, ponentziak interesatuen eskuko izango dira hilabetean katastro bulegoetan.

16. ARTIKULUA

1.- Bi udalerritan edo gehiagotan dauden ondasun higieziinei dagokienez, haien balioa bi eratarik kalkula daiteke: higiezin bakoitzari ponentzia bakarrik aplikatuz edo erabileraren eta xedearen arabera homogeneoak diren higiezin guztiei ponentzia bera aplikatuz.

2.- Halaber, konurbazio bateko udalerririk guztietako higiezinak udalaz gaindikoko ponentzia aplikatuz ere balora daitezke.

17. ARTIKULUA

1.- Hirilurreko ondasun higiezinaren katastro-balioa zehazteko, egotzi beharreko gutxieneko balioa zehazteko onetsitako balorazio arau teknikoak eta balioen koadroa hartu behar dira kontuan.

2.- Halakoetan, balio-ponentziak aipatu arau eta balio horien arabera prestatuko dira. Halaber, egotzi beharreko gutxieneko balioa zehazteko erabilitako merkatu-azterlanak ere har daitezke oinarritzat; nolahi ere, haiek antolamendu juridikoan ezarritako betekizun guztiak bete behar dituzte.

3.- Hirilurreko ondasun higiezin bat egotzi beharreko gutxieneko balioa ezarrita ez duen erabilera baterako bada, beraren katastro-balioa horretarako berariaz onetsitako irizpideen eta balioen koadroaren arabera kalkulatu da. Horiek balioak egiaztatze ere erabil daitezke balorazio-irizpide gisa, beti ere zio nahiko emanaz gero.

VI.- ZERGA KUOTA

18. ARTIKULUA

1.- Zerga honen kuota zehazteko zerga-oinarriari dagokion karga-tasa aplikatuko zaio.

2.- Karga-tasa eranskinean jasota dago.

3.- Kuota likidoa kalkulatzeko, kuota osotik hurrengo artikuluan ezarritako hobariak kendu behar dira, halakorik aplikatzerik badago.

VII. HOBARIAK

19. ARTIKULUA

1.- Obra berriak zein berritzat har daitezkeen zaharberrikuntzako obrak egiten dituzten urbanizazioko, eraikuntzako, eta higiezin sustapeneko enpresen jardueraren xede diren higiezinak %50eko hobaria izango dute zergaren kuota garbian, baldin eta interesdunak obra berriaren altadierazpenarekin batera eskatzen badu eta higiezina ibilgaituko ondasuna ez bada.

Hobari hau obrei ekin eta hurrengo zergalditik hasi eta obrak amaitu eta hurrengo zergaldira bitartean jaso ahal izango da, baldin eta aldi horretan urbanizazio edo eraikintza obrak egiten badira. Nolanahi ere, aldi hori ezin da hiru zergaldi baino luzeagoa izan.

2. - Babes publikoko etxebizitzan eta Euskal Autonomia Erkidegoko arauekin bat etorritik haiekin berdinetan ahal diren etxebizitzan kasuan, Zergari dagokion kuota osoari %50eko hobaria aplikatuko zaio behin betiko kalifikazioa eman eta hurrengo hiru zergaldietan. Hobari hori interesatuak eskatuz gero emango da; aipatu hiru zergaldiko epealdia amaitu aurreko edozein unetan egin daiteke eskaria eta, hala badagokio, eskatu eta hurrengo zergaldian izango ditu ondoreak.

3. - Nekazaritzako kooperatiben eta lurren baterako ustiapenerako kooperatiben landalurreko ondasunen gaineko zergaren kuota osoan %95eko hobaria aplikatuko da; horretarako, Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko urriaren 14ko 9/1997 Foru Arauan ezarritakoa hartu behar da aintzat.

4. - Zergaren sortzapenaren unean subjektu pasiboak familia ugariako kidea bada, eta dena delako ondasun higiezina familia unitatearen ohiko etxebizitza bada, zergaren kuota osoan hobaria izango du, jarraian azaltzen den portzentajearekin bat etorrita:

FAMILIA UGARIAREN KATEGORIA

	OROKORRA	BEREZIA
Eraikinaren balio katastrala \leq 15.000 €	30 %	40 %
Eraikinaren balio katastrala $>$ 15.000 €	20 %	25 %

Hobariak ez du atzera-eraginik izango. Subjektu pasiboak hobaria jaso nahi badu, eskabidea urtero egin behar du zergaldiko abenduaren 31 baino lehen eta ondorengo dokumentazioarekin batera aurkeztu:

- Hobaria eskatzeko idazkia. Eskabidean argi eta garbi identifikatu behar da ondasun higiezina.
- Ondasun higiezinaren jabetza egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.
- Familia ugariaren titulua, Bizkaiko Foru Aldundiak edo aginpidea duen beste organoren batek luzatua.

Familia unitateak familia ugariaren izaera duen bitartean izango du hobaria jasotzeko eskubidea. Egoera aldatzen bada, horren berri eman behar dio subjektu pasiboak Udalari. Dena den, Udalak eskubidea du hobaria jasotzeko bete behar diren baldintzak bere kabuz egiaztatzeko eta, hala badagokio, berandutze interesak eskatu eta bidezko diren kitapen osagarriak egiteko. Dena dela, gertatutako bestelako egoera aldaketak kontuan hartzeaz gain, familia ugariaren tituluaren iraungipen egunean emango da amaitutzat hobaria jasotzeko eskubidea.

VIII. SORTZAPENA

20. ARTIKULUA

- 1.- Zerga hau urte bakoitzeko urtarrilaren lehenean sortzen da.
- 2.- Kargapeko higiezinetan gertatzen diren aldakuntza fisikoek, ekonomikoek edo juridikoek hurrengo zergaldian izango dituzte ondorioak; ez da egongo administrazio-egintzaren jakinarazpena bidali beharrik.

IX.- ZERGA KUDEATZEA

21. ARTIKULUA

Zerga kudeatzeko errolda egingo da urtero udalerrri guztietan. Errolda horretan ondasun higiezin, subjektu pasiboen eta katastroko balioen zentsuak egingo dira, landalurrekoak eta hirilurrekoak bereizita. Errolda jendearen eskura egongo da udaletxean.

22. ARTIKULUA

1.- Subjektu pasiboek arauz ezartzen diren epeetan egin behar diote aitorpena Udal Administrazioari:

- a) Ondasuna eraikuntza berria bada, alta aitorpena egin behar dute.
- b) Zerga honen kargapean dauden ondasunak eskualdatzen direnean, eskuratzailleak altaren aitorpena aurkeztu beharko du, eskualdaketa zioa azaltzen duen agiriarekin batera; era berean, eskualdatzailleak bajaren aitorpena aurkeztu beharko du, eta bertan adieraziko dira eskuratzaillearen izena eta egoitza, ondasunen mugak eta kokaera, eskualdatzearen data eta eskualdatzearen kontzeptua.

Eskualdatzea "mortis causa" egintzaren baten zioz egiten bada, ezarriko den epea Oinordetzen gaineko Zerga likidatzen den egunetik aurrera zenbatuko da, eta jaraunsleak egin beharko ditu bi aitorpenak, altarena eta bajarena.

c) Zergapeko ondasunei dagozkien aldarazpen fisiko, ekonomiko edo juridikoen ondorioz gerta litezkeen aldaketa guztien aitorpena egin beharko da.

23. ARTIKULUA

Katastroen berrikuspenak direla eta, edo katastroko balioen finkapen, berrikuspen eta aldarazpenen ondorioz, edo zerga ikuskalaritzaren jarduketan ondorioz, edo alta eta berriemateak formalizatzearen ondorioz Higiezin Katastroetan datuak sartzea, kentzea edo aldatzea administrazio egintzat hartuko da, eta zergaren erroldaren aldarazpena ekarriko du. Erroldan egiten den aldaketa orok, Higiezin Katastroetan dauden datuak ukitzen baditu, nahitaez esjkatzen du, aldez aurretik, katastroko datu horien aldaketa egin beharra.

24. ARTIKULUA

1.- Udalari dagozkio ordainarazteko ahalmena, kudeatzekoa, likidatzekoa, ikuskatzekoa eta biltzekoa, hala borondatezko aldian nola premiamendu bidean, hurrengo hiru zenbakian xedatutakoa gorabebehera.

2.- Hain zuzen, udalaren ahalmenak dira altak tramitatzea eta likidatzea, altak eta bajak likidatzea, erroldak jendaurrean erakustea, errekurtsioak eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak aplikatzea eta zerga honen alorrean zergadunari laguntza eta informazioa emateko jarduketak egitea.

3.- Foru Aldundiaren eta ez beste inoren eskumenekoak dira lurren mugaketak egitea eta balio-ponentziak prestatzea zein onestea, bai eta mugaketa horiek eta katastro-balioak finkatzea, berrikustea, eta aldatzea ere. Era berean Foru Aldundiaren eskumenekoak dira Zergaren Katastroak eta Erroldak prestatzea, artatzea, berritzea eta berezko dituzten gainerako eginkizun guztiak

Udala eta Foru Aldundia lankidetzan arituko dira Katastroa prestatzeko eta artatzeko.

Era berean, Foru Aldundiaren eskumena da kobratzeko ordainagiriak egitea eta Zergaren katastro ikuskapena egitea.

Salbuespenak eta hobariak emateko edo ukatzeko beharrezkoa izango da Foru Aldundiaren aurretiko txosten teknikoa eta hartutako erabakia, gero, Foru Aldundiari jakinarazteta.

25. ARTIKULUA

Lurren mugaketak onartzen dituzten egintzen aurka edo balio-ponentzien aurka zein katastro balioen aurka tartekatzen dituzten errekurtsio eta erreklamazioak Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoari lotuko zaizkio eta Foru Aldundia izango da errekurtsio eta erreklamazio horiek erabakitzekeo eskumena duen organoa. Errekurtsioak eta erreklamazioak aurkezteak ez du bertan behera uzten egintza horiek betebeharra.

26. ARTIKULUA

1.- Foru Aldundiak prestatuko du errolda eta udalari bidaliko dio.

2.- Behin errolda jaso ondoren, udalak jendaurrean azalduko du hamabost egunez, ukitutako zergadunek aztertu eta, bidezkotzat iritziz gero, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

27. ARTIKULUA

1.- Jendurreko erakustaldia amaitu eta jasotako erreklamazioak ebatzita, emaitzaren egiaztagiria Foru Aldundiari igorriko zaio onarpenera eman diezaion.

2.- Behin onetsita, Foru Aldundiak ordainagiriak egingo ditu eta zergadunei igorriko zaizkie zergabilketari ekiteko.

X. XEDAPEN GEHIGARRIA

1) Honako artikulua honetan xedatuaren ondoretarako, Espainiar estatuak eta Vatikanokoak 1979ko urtarrilaren 3an ekonomia arazoei buruz egindako akordioak indarrean dirauen artean, 6 b) artikuluan xedatutakoari dagokionez, ondoren adieraziko diren ondasunek salbuespena izango dute:

a) Kulturako erabiltzen diren tenplu eta kaperak, horien bulegoak eta jarduera pastoralerako erabiltzen diren eraikin erantsiak.

b) Gotzainen, kalonjeen eta jardunean dauden apaizen egoitzak

c) Elizbarrutiko kuriaren bulegoak eta parrokia bulegoak.

d) Elizbarrutiko kleroaren eta erlijiosoen prestakuntzarako apaizgaitegiak eta Elizaren unibertsitateak, beti ere Elizaren alorreko gaiak irakasten badituzte.

e) Nagusiki erlijiosoen ordena eta kongregazioen etxe-komenturako erabiltzen diren eraikinak eta, baita, bizitza kontsokratuko erakundeenak ere.

2) Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Zergaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza Fiskal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

XI. ALDI BATERAKO XEDAPENA

1.- Hiri-ondasun higieziari dagokionez, 1990eko urtarrilaren 1ean indarrean dauden Hirilur Kontribuzioaren katastro-balioak erabiliko dira zerga eskatzeko, harik eta balio horiek Ordenantza honetako arauen bidez finkatzen diren arte.

2.- Landa izaera duten ondasun higieziari dagokionez, aurreko idatz-zatian adierazi diren baldintzak betez eskatuko da zerga, eta ondasun horien katastroko balioa 1990eko urtarrilaren 1ean indarrean dauden oinarri likidagarrien zenbatekoaren ehuneko hiru kapitalizatzearen emaitza izango da Landalur eta Abere Kontribuzioaren ondoretarako

3.- Urbanizazioko eta eraikuntzako obra zerga hau ezarri baino lehenago hasita badago, ordenantza honetako 19.1. artikuluan ezarritako hobariaz onuratzeko epea murriztu egingo da, obren hasieratik zerga indarrean jarri arte igaro diren urteen kopurua kenduz.

4.- Zerga hau indarrean jartzen den egunean Landalurren eta Abereen gaineko Kontribuzioan edo Hirilur kontribuzioan edozein motatako zerga-hobariren bat dutenek, hobariaz onuratzeko dute Ondasun Higieziaren gaineko Zergari dagokionez hobaria iraungitzen den egunera arte, edo, hobariaz onuratzeko eperik ez badute, 1992ko abenduaren 31ra arte, azken egun hori barne dela.

5.- Babes ofizialeko etxebizitzeari buruzko legeen arabera 1992ko abenduaren 31 baino lehen egindako eraikinek ehuneko berrogeita hamarreko hobaria izango dute etxeak egitea amaitu eta ondorengo hiru urtetan, Ondasun Higieziaren gaineko Zergaren kuotari dagokionez.

XII. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2009ko urriaren 29an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2010eko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo



indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

ERANSKINA

TARIFAK 2009

KARGA-MOTA

A) HIRILURREKO ONDASUNAK

% 1,26

B) LANDALURREKO ONDASUNAK

% 1,22